

Erakusketa Exposición

LEHENGO AMARA de ANTAÑO



Asier Agirresarobe

Komisarioa Comisario

ERNEST LLUCH Kultur Etxea Centro Cultural

Erakusketa Aretoa Sala de Exposiciones

Urria 09 Octubre - **Abendua 12** Diciembre


Astelehenetik ostiralera 16:00 - 20:30 De lunes a viernes

Larunbatetan 17:00 - 21:00 Sábados

www.donostiakultura.com/amara



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián



DSS2016.EU

LEHENGO AMARA de ANTANO

Amaratar askorentzat eta, oro har, donostiar nahiz inguruko herrietako biztanle ugarirentzat, Urumea errioaren ertzeko zingirak lehortu ondorengo nekazaritzako erriberetan XX. mendearen bigarren erdian eraikitako auzoa besterik ez da Amara, etxebizitza-eraikin handiz osatuta, zerbitzu eta bizitegi-auzoa.

Amara Berrirentzat balio baldin badezake ere, inolaz ere ez Amara auzo historikoarentzat. Lehengo Amarak beste muga batzuk zituen, beste lur eremu bat hartzen zuen, askoz ere hedadura zabalagoa zuen. Gotortutako Donostiatik kanpo, ehundik gora baserriekin, landa eremuko auzoa zen Amara, auzorik nagusia, hain zuzen ere.

Erakusketa honen bidez garai bateko Amaratik egungo Amara Berrira mugaren ikuspuntutik auzoak ezagutu duen bilakaera azaldu nahi da, horretarako kartografia historikoa baliatuz. XIX. mendearen hasieran Amara auzo gisa agertzen denetik gaur egun arte, Amararen mugalerroa marraztu da garai ezberdinetako hainbat plano historikotan, eta argazki nahiz azalpenak tartekatuta dira bilakaera ulertzen hobeto lagunduko dutelakoan.

Asier Agirresarobe (komisarioa)

Para muchos amaratarraz y, en general, tanto para los donostiarraz como para los vecinos de los pueblos de alrededor, Amara no es más que un barrio, de servicios y residencial, formado por grandes edificios de viviendas, construido durante la segunda década del siglo XX en las riberas agrícolas formadas tras la desecación de las marismas de la ría del Urumea.


Si bien podría valer para Amara Berri, en ningún caso para el barrio histórico de Amara. El Amara de antaño tenía otros límites, ocupaba otra superficie de terreno, de mucha mayor extensión. Extramuros de la fortificada ciudad, con más de un centenar de caseríos, Amara era un barrio rural, precisamente, el mayor de los barrios.

Mediante esta exposición y valiéndonos de la cartografía histórica, se pretende mostrar la evolución que ha conocido el barrio, del Amara de antes hasta el Amara Berri actual, desde el punto de vista de las lindes. Desde que a comienzos del siglo XIX aparece como barrio hasta la actualidad, se ha dibujado la línea de término de Amara en varios planos históricos de diferentes épocas, entre los cuales se han intercalado textos explicativos y fotografías para una mejor comprensión.



Sabene Etxeberri



1916. urte aldera bacia el año 1916



**Amara auzoko mugak
XX. mendeko lehen hamarkadan.**

**Plano topografiko militarra.
Armadaen Topografia Zerbitzua**

**Límites del partido de Amara
en la primera década del siglo XX**
Plano topográfico militar.
Servicio Topográfico del Ejército



Amararen eta egungo Amara Berriren mugak 2015eko Donostiako kale izendegiaren planoan.

Límites del Amara de antaño y del Amara Berri actual reflejados en el plano del callejero de San Sebastián de 2015.

Auzoaren hastapenak

1863an harresiak eraisteari ekin zioten arte, Donostia plaza militarra eta hiri gotortua izan zen, eta Amara, harresiz kanpo bere jurisdikziopean zegoen auzoa, Eguia, Loyola, Lugariz, Ulia eta Ibaeta auzoak ziren moduan. Horietaz gain harresien kanpoaldean sortutako beste bi errebal ere bazituen, San Bartolome muinoan San Martin, eta Santa Katalina zubiaren eta portutxoaren inguruan eratutakoa. Halaber, bere eskumenen barne zituen ondorengo herriak: Aduna, Alza, Igueldo eta Zubietako Komunitatearen zati bat, baita Urumeako mendietan lur eremu handiak ere.

Garai bertsuan, 1862an, Lorenzo Alzate udal idazkariak Donostiako kale eta landa eremuko etxeen erregistroa burutu zuen, auzoz auzo eraikin bakoitzari lehen aldiz zenbaki bana egokituz. Lan horri esker Amarako baserrien zerrenda zehatza ezagutzeaz gain, auzoen hedapena eta beraien arteko banaketa norainokoa zen jakin dezakegu, tartean Amararena. Lan horren aurrekoak dira, auzo ezberdinetako etxe bakoitzak ordaindu beharreko errenta kuota eta jabea adierazten zuten dokumentuak, hainbat urteetako Donostiako hiriaren lurralde-errentaren egoera adierazten duten dokumentuak guztiak. Halaber, garai hartakoa da Donostiako auzoak eta bertako baserriak ageri diren plano topografikoa, ondoren ikus dezakezuen. Etxe izen guztien artean Amararena azpimarratz nabarmendu da.

Udal idazkariaren arabera Amara auzoak Hernani eta Astigarragarekin mugatzen zuen hegoaldeetik; Donostiatik Hernanirako Errege bidearen adarrak, Goiko Galtzadak banantzen zuen Lugaritz auzotik, mendebaldean, eta ekialdeetik, Urumearen ertzearaino iristen zen, Loiolako auzoa inguratuz. Altza eta Egia auzoetatik Urumeako errioak banantzen bazuen ere, Loiola auzotik Anoetako erreken beheko zatiak eta hautazko marra batek.

XVIII. mendeko dokumentuetan Amara auzoko etxeetako asko dagoeneko agertzen badira ere, Amara auzoaren aipamenik ez da egiten. Donostia Iruñeko elizbarrutiaren barnean egonik, 1776an Iruñean aurkeztzen den Donostiako parrokia-elizak berrantolatze txostenean (Plan benefiziala deitutakoa), Amarak hartuko lukeen eremua partido de Antzieta o Loyola la Alta, partido de Anoeta eta Ayetek hartzen dute.

Auzoaren izena San Bartolome muinoaren atzealdean zegoen Amara deitutako baserriatik dator, gaur egunean Amara kaleak hartzen dituenetan. Amara baserriak inguruko Arroka, Anduezaenea eta Unaenerekin auzotxo bat osatzen zuten, garai hartako Amarako "plaia" edo hondartzan urak Urumeako erriora isurtzen zituen erreken ertzean. Baserri zaharra XX. mende hasierarako desagertu eta orubean auzo-garbilekuak eta ardi-hiltegia eraiki ziren mendearen lehen erdian; txakurtegi izan ondoren, 1970eko hamarkadan, azkenik, Manuel Lekuona azterlariaren eskariz, eraikuntza bera birmoldatu eta Santiago parrokia eraiki zen, antza inguru horretan lehorratzen baitziren, Urumea ibaia zeharkatuta, Santiagora zihoazen erromesak.

Amara izenaren jatorriari dagokionez, Donostiako toponimo ugariren moduan, hitz gaskoia dela dirudi. Gaskoiez, Amare edo Amareda hitzek eguzkirik gabeko lurra, ospela, zingiratsua, ez emankorra, esan nahi dute, eta horrelakoa zen, hain zuzen, Amara baserria kokatuta zegoen inguruan. 1180 inguruan, Nafarroako errege Antso Jakitunak Donostia hiribildu izendatzeko foruak eman zituenetan, Urgull mendiaren azpiko herrixka gaskoiek populatu behar zutela agindu zuen. Hala, nafar euskaldunak gain, Gaskoniakoak izan ziren hiribilduko lehen biztanleak, eta ondorioz, ugari dira Donostiako toponimian txertaturik gelditu diren jatorri hartako toponimoak: Urgull, Puiu, Miramon, Morlans, Aiete, Monpas, Mirail, Polloe, Parada...

Bestalde, XVIII. mendeko bigarren erdirako amaitzeaz zegoen ibaiertzetako zingirak zein ihitzak lehortu eta nekazaritzako eremu bilakatzeko prozesu luzea. Ondorengo planoan, 1782an Urumeak itsasoratu baino lehen marrazten zuen ibilbidea eta errio bazterrak ikus daitezke.

Los comienzos del barrio

Hasta que comenzara el derribo de las murallas en 1863 Donostia / San Sebastián fue plaza militar y ciudad fortificada y Amara era un barrio de su jurisdicción situado extramuros, al igual que Eguía, Loyola, Lugariz, Ulia e Ibaeta. Además de ellos, también contaba con dos arrabales situados fuera de las murallas: San Martín, bajo el cerro de San Bartolomé, y Santa Catalina, surgido junto al puente y el puerto. Asimismo, en su jurisdicción entraban los pueblos siguientes: Aduna, Alza, Igueldo y una parte de la Comunidad de Zubietako, así como grandes terrenos en los montes del Urumea.

En esa misma época, en 1862, el secretario municipal Lorenzo Alzate realizó el registro de viviendas urbanas y rurales de Donostia / San Sebastián, asignando un número a cada edificio, barrio a barrio, por primera vez. Gracias a esa labor, además de conocer la relación exacta de caseríos de Amara, podemos saber cuál era la extensión y los límites de cada barrio, entre ellos Amara. Antes del registro existían unos documentos que determinaban por cada partido, la cuota de renta y el nombre del propietario de cada vivienda, documentos que reflejaban los diferentes Estados de la renta territorial de la propiedad de la ciudad de San Sebastián. También es de esa época el plano topográfico que define los partidos de la ciudad y los caseríos de cada uno de ellos, que pueden ver a continuación. Entre todos los nombres de vivienda se ha subrayado el de Amara.

Según el secretario municipal Amara limitaba con Hernani y Astigarraga por el sur; el ramal del Camino Real que de Donostia iba a Hernani, Goiko Galtzada, lo separaba del barrio de Lugaritz, por el oeste; y por el este, llegaba hasta la orilla del Urumea, rodeando el barrio de Loiola. Si bien el río Urumea lo separaba de Altza y Egia, del barrio de Loiola lo separaba la parte baja del arroyo Anoeta y una línea arbitraria.

Si bien en los documentos del siglo XVIII aparecen muchas de las casas y caseríos del barrio de Amara, no se hace mención alguna del barrio de Amara. San Sebastián pertenecía entonces a la diócesis de Iruña-Pamplona y en el informe de reorganización de las iglesias parroquiales de la ciudad presentado en la capital navarra en 1776, en el llamado Plan Beneficial, la extensión correspondiente a lo que sería Amara queda dividida en el partido de Ancieta o Loyola la Alta, partido de Anoeta y Ayete.

El nombre del barrio proviene del caserío situado en la parte trasera del cerro de San Bartolomé, en los terrenos que en la actualidad ocupa la calle Amara. El caserío Amara, junto con Arroka, Anduezaenea y Unaenea, formaba un pequeño grupo de casas a orillas del arroyo que vertía sus aguas al Urumea en la llamada "plaia" de Amara. El caserío desapareció a comienzos del siglo XX y el solar acogió el lavadero y el matadero ovino del barrio durante la primera mitad del siglo; posteriormente fue perrera y, por último, en la década de 1970 y a petición del investigador Manuel Lekuona, se remodeló el edificio y construyó la parroquia de Santiago ya que, según él, los peregrinos en su camino hacia Santiago tomaban tierra en ese lugar tras atravesar el río Urumea.

En lo que respecta al origen del nombre Amara, parece ser un término gascón, al igual que muchos topónimos de Donostia / San Sebastián. En gascón los términos Amare o Amareda significan tierra sin sol, umbría, pantanoso, no fructífera. Y así era precisamente el entorno en el que se levantaba el caserío Amara. En torno a 1180, cuando el rey navarro Sancho el Sabio dictó los fueros para nombrar villa a San Sebastián, ordenó que el poblado situado bajo el monte Urgull fuera poblado por gascones. Así, además de los oriundos navarros vascófonos, fueron de Gascuña los primeros moradores de la villa y, en consecuencia, los términos de origen gascón son muy habituales en la toponimia donostiarra: Urgull, Puiu, Miramon, Morlans, Aiete, Monpas, Mirail, Polloe, Parada, Arzak, Beloka...

Por otro lado, para la segunda mitad del siglo XVIII estaba a punto de finalizar el largo proceso de desecación de las marismas y juncales situados a orillas del Urumea, para convertir la zona en entorno agrícola. En el plano siguiente se ve el recorrido y las márgenes del río Urumea en 1782, antes de su desembocadura.



1782 urtea. Urumea ibaiaren mapa topografikoa
Donostiako hirian itsasoratu baino lehen.
Archivo Chancilleria Valladolid. PARES.

Año 1782. Mapa topográfico del río Urumea
antes de su desembocadura en la ciudad de San Sebastián.
Archivo Chancilleria Valladolid. PARES

Mapa Chorografico en que manifiesta el territorio de las
Riveras y faldas de montes con varios caserios que se
hallan en las cercanias del rio Urumea empezando desde
el puente del barrio de Santa Chatalina de la Ciudad de
San Sebastian hasta el caserio de Loiola

Explicacion

1. Brazo de mar, puente de Santa Chatalina y su puerto.
2. Rio de Santa Chatalina, o Urumea.
3. Molino de la Naza que posee Don Joaquin de Beroiz.
4. Comporta de dicho molino.
5. Presa y juncales del mismo molino reducidos al presente a tierras sembradas.
6. Puerto y fuente llamado Larrondo privativo de la casa de Zorroaga.
7. Camino para Zorroaga en propio terreno.
8. Casa de Zorroaga.
9. Texeria (tejeria) de Zorroaga germada (quemada).
10. Juncales reducidos a sembrados de sesenta años a esta parte.
11. Tambien juncales posteriores, reducidos a sembradio.
12. Molino de Juanindegui que posee el señor marques de San Millan.
13. Comporta de Juanindegui.
14. Casa de Maisu Martiñenea.
15. Molino de Santiago y su casilla cuyos poseedores son Don Francisco de Larralde Diustegui y consortes.
16. Comporta que llaman La Grande de dicho molino de Santiago.
17. Juncal y plaia del propio molino.
18. Sembradio o riveras del mismo.
19. Juncales que modernamente han cerrado los de Santiago con animo de reducir tambien a sembradio.
20. Puerto franco y comun de Ganchegui.
21. Casilla que llamaban Cavanazar que oi no existe.
22. Casa de Ganchegui.
23. Molino de Anoeta que es de Don Juan Francisco de Mendizabal.
24. Regata que desciende devajo de dicho molino y pasa por los nombrados Juanindegui y Santiago hasta juntar con la rria.
25. Casa de Illumbe.
26. Idem de Alcano.
27. Idem de Chimitegui.
28. Idem de Chomingotegui.
29. Borda germada llamada Beitegui.
30. Casa de Igueltegui.

31. Texeria del molino de errotaverria.
32. Casa nombrada Olaso.
33. Idem la llamada Palacio.
34. Idem de Capaiztegui.
35. Idem de Atarieder.
36. Idem Machiñenea.
37. Ancieta Echeverria
38. Camino para el molino de Errotaverria.
39. Comporta de dicho molino.
40. Molino de Errotaverria.
41. Presa de dicho molino.
42. Pres vieja de dicho reducido a sembradio.
43. Presa vieja del molino de la Naza reducido a sembradio.
44. Presa nueva del molino de Errotaverria reducido a sembradio.
45. Puente de Loiola para San Sebastian.
46. Camino y cuesta de Piñueta.
47. Casa de Navarriñenea.
48. Idem de Uretanea.
49. Idem de Berreiarzaene y Miguelaene.
50. Idem de Torres.

51. Zuloetaenea.
52. Pajarera vieja de Mundaiz.
53. Glorieta de Mundaiz.
54. Casa de Mundaiz y su texavana.
55. Texeria de Mundaiz.
56. Molino de Errotachiqui en Concejil.
57. Su comporta y presa actual.
58. Presa reducido a sembradio.
59. Sembradio anterior a dicho molino.
60. Las terreras y sus sendas para transitar.
61. Mojones de la ciudad en el partido de Ganchegui.
62. Mojones que devian existir segun lo justifican.
63. Sitio tambien donde devian existir hoy
64. Mojones donde devian tambien existir.
65. Mojones donde se encuentran entrados.
66. Fuente de Pachillardegui.
67. Camino de lavanda de San Francisco.
68. Plaia de las dos partes del Urumea.
69. Pascualdegui.
70. Olazavaldegui.
71. La casa chia que se halla entre estas.

72. Camino para Zorroaga por donde
al presente se halla obligado a hacer
los acarretos para sus estendisimos
campos sembradios con mucha
penuria por lo asperoso de dicho
camino y su larga distncia originada a
causa de averse reducido el canal y
plaia el molino de la Naza a sembradio.

73. Cantera en cuiu monte se arranca
piedra.






Donostiako jurisdikzioaren plano topografikoa,
1860 urte inguruan.

Plano topográfico de la jurisdicción de San Sebastián,
hacia 1860.

1 Amara baserria
Caserío Amara






Didier Petit de Meurville-ren margolana. 1864an Norteko trena Donostiara iritsi eta gutxira egindako obra. Bertan Urumeako errioa Santa Katalina zubiaren ingurutik ikusita ageri da lehen planoan. Ezkerrean, lurrunezko tren-makina tiratako trena ikus daiteke, eta haren atzean, **Torres etxea** eta, muinoaren gainean, **Zuloaga baserria**.

Pintura de Didier Petit de Meurville realizada pocos años después de la llegada del Ferrocarril del Norte a San Sebastián en 1864. En él figura en primer plano la ría del Urumea visto desde los alrededores del puente de Santa Catalina. A la izquierda, se observa un tren con su locomotora a vapor, y tras él, la **casa Torres** y el **caserio Zuloaga** sobre la colina.



Amarako errioak Anoetako erreka-ekin bat egiten duen gunearen argazkiak, errioaren bideratze lanei ekin aurretik egindakoak, XX. mendearen lehen hamarkadan. Lehena koloreztatuta, bigarrena itsabeherarekin eta azkena marea goran dagoela. Behean, lehen planoan, Santiago baserria eta bere erriberak ikus daitezke, jatorrian marea-erota izandakoa, eta Santiagotxiki alboan; atzealdean, Donostiako erdialdearen aurrean Amarako hondartzaren arrastoak; ezkerrean, kostako eta "Mugara" zihon trenaren trenbidea eta Morlanseko gas fabrika, eta, eskuinean azkenik, Egia izatetik Amara izatera igaro zen lur eremua eta bertako lursail landuen artean Errotatxiki, Etxeberria eta Presaburu etxeak.



Fotografías de la zona de confluencia de la ría de Amara con la regata de Anoeta, tomadas antes del encauzamiento, en la primera década del siglo XX. La primera coloreada, la segunda en bajamar y la última con la marea alta. Abajo, en un primer plano son visibles el caserío Santiago y sus riberas, originalmente molino de marea, y, junto a él, Santiagotxiki; en el fondo, delante del centro de la ciudad restos de la playa de Amara; a la izquierda, las vías del tren de la costa y de "la frontera" y la fábrica de gas de Morlans, y a la derecha, por último, los terrenos que pasaron de Egia a pertenecer a Amara, entre cuyas parcelas cultivadas se aprecian las casas de Errotatxiki, Etxeberria y Presaburu.

2



1



3



Urumeako errioaren bideratze lanak. XX. mendearen lehen hamarkadak. Lehenengoan, Maria Kristina eta Santa Katalina zubien artean eskuin ertzeko murrua eraikitzen ikus daiteke. Bigarrengoan, bideratzearen ondorioz desagertu zen Errotatxiki, garai batean marea-erota izandakoa, eta azkenekoan, 1920ko hamarkadan, bideratzea amaituta, oraindik ibilgu zaharra ikus daitekeen arren.

Obras del encauzamiento de la ría del Urumea. Primeras décadas del siglo XX. En la primera, se observa la construcción del muro de la margen derecha, entre los puentes de Maria Cristina y Santa Catalina. En la segunda el caserío derribado por la obra Errotatxiki, antiguo molino de marea y, en la última, el encauzamiento finalizado en la década de 1920, donde todavía se puede observar el antiguo cauce de la ría.

Irudiak Imágenes

Kutxateka eta Amarauna fondoak
Fondos de Kutxateka y Amarauna

Landa eremua nagusi Amaran

Udal idazkariak egindako lanaren arabera, baserri gehien zuen auzoa zen Amara, 1862an, guztira 105 baserriekin. Urte horretan Donostiak 762 baserri zituen, 381 kale-etxe eta beste 25 eraikin zenbakirik gabeak (publikoak, zerbitzuetakoak, erlijio-eraikinak...). Mende honetan, Donostiak plaza militarra izateari utzi eta merkataritzara eta geroago turismo gune garrantzitsu izatera bideratuko bada ere, Amaran oraindik landa eremua nagusi izaten jarraituko du.

XX. mendearen erdian oraindik mantentzen da auzo historikoen banaketa. Amara bitan banatuta agertzen da hainbat planotan, Beheko Amara eta Goiko Amara. Lehen zatian hego-ekialdeko lurak sartzen ziren, Goiatz ingurua eta Martuteneko erriberak; bigarrenean, ipar-mendebaldekoak, Anoeta ingurutik Goiko Galtzadarainoko muino guztiak. Halere, mende osoan zehar eraikuntza-lan garrantzitsuak ezagutuko ditu Donostiak, gerora lurralde hedaduran aldaketa nabarmenak ekarriko dizkionak Amara auzoari.

Donostiaren hazkundera abian

Harresiak eraistearekin batera abiatu zen Donostian zabalgu-neak eraikitzeak garaia. XIX. mendea amaitzerako Cortazar zabalguena izenez ezagutu zena osatuta zegoen, Artzain Onaren katedraleraino, eta jatorrizko Amara baserriaren ingurura, gerora Amara Zaharra deituta ezagutuko dena, Kostako trenbidea iritsi zen.

XX. mendearen lehen laurdenean, Amarako hondartzari irabazitako eremuari esker, hiriaren erdialdea osatu zuen Hegoaldeko Zabalguena (Prim kalea barne) erabat beteta zegoen. Haren hegoalderako jarraipen naturalak errioa, Anoeta erreka eta Santiagoko erriberekin egiten zuen topo, azken horiek Loiola auzokoak. Eremu zabal haren urbanizazio prozesuaren lehen mugarrira Urumearen bideratzea izan zen, Santa Katalina eta Norteko trenbidearen zubiaren (Burdinazko zubiaren) artean. 1926an inaugurazio ekitaldi ofiziala ezagutu zuen obra garrantzitsu haren ondorioz, Egia auzoko Mundaiz penintsulako zati bat Amara izatera igaro zen, baita lur eremu horretan zeuden Etxeberria eta Presaburu etxeak ere, eta handik hamarkada batzuetara Amara Berriren eraikitzea ahalbidetu zuen.

Urumearen bideratzearekin batera, errioiari irabazitako lurak berreskuratzeko lehen egitasmoak aurkeztu ziren. Azken egitasmo irabazlearen arabera **1940ko hamarkadaren hondarrean** hasi ziren eraikitzen Mendeurrenaren plaza eta Anoeta artean, Amarako Zabalguena edo Amara Berri auzoa, hainbat fasetan, ia mende amaiera arte iraun duen prozesu luzean. Errioiaren bideratzearekin uberka zaharrean betelana burutu behar izan zen lehenik, eta horretarako, besteak beste, Anoeta inguruko Errandoko bizkarreko harrobiak erabili ziren. Auzo berriaren sorrerarekin batera jatorrizko Amara baserriaren inguruak Amara Zaharra izena hartuko du. Amara Berriko eraikuntza fase horiek amaitzean, Irun plaza, "Topoa" eta Renfeko trenbidearen arteko eremua, Apéndice de Amara edo Amarako eranskina delakoa, hutsik geratu zen, etxebizitzak eraikin bakanen bat izan ezik, 1990eko hamarkadan Amara-Osinaga izena hartu zuen zabalguena eraiki zen arte.

Bestalde, 1950eko hamarkadatik aurrera ezagututako hazkunde demografikoak Martutene inguruak auzo izaera hartzea ekarriko du, Altzako Sarroeta eta Beheko Amarako lurren zati handi bat bereganatuz. Era berean, hurrengo hamarkadetan Amara zabal hartako beste alderdietan ere auzo berriak osatzen joango dira, Aiete eta Zorroaga-Miramón, esaterako.

Hazkunde jarraia azken mugarri moduan, **2000ko hamarkadan**, garai bateko Loiolako Beheko erriberetan, Donostiako azken zabalguena eraiki eta auzogune berri handi bat sortu zen, Loiolako Erriberak. Renfeko trenbideaz bestaldeko hiriaren hedapen berri honekin, Erdialdetik Urumean gora Loiola auzorainoko eremuak hiri-sare jarraia du.

El suelo rural, predominante en Amara

Según el trabajo del secretario municipal, en 1862 Amara era el barrio con más caseríos; en total, tenía 105 caseríos. En ese mismo año Donostia / San Sebastián tenía 762 caseríos, 381 viviendas urbanas y otros 25 edificios sin número (públicos, de servicios, edificios religiosos, etc.). Durante ese siglo la ciudad deja de ser plaza militar y si bien pasa a ser punto neurálgico comercial, y más adelante turístico, Amara sigue siendo eminentemente rural.

A mediados del siglo XX aún se mantenía la distribución de los barrios históricos y Amara aparece dividido en algunos planos: Amara Bajo y Amara Alto. En el primero aparecían los terrenos del sur-este, el entorno de Goiatz y las riberas de Martutene; en el segundo los del norte-oeste, todos los cerros desde Anoeta hasta la calzada de Hernani. Sin embargo, a lo largo del siglo la ciudad vivió obras de construcción significativas que acarrearían cambios importantes a la extensión de la superficie del barrio de Amara.

El crecimiento de Donostia / San Sebastián, en marcha

Al tiempo que se derruían las murallas comenzó la construcción de los ensanches de la ciudad. Para finales del siglo XIX había finalizado el ensanche conocido como Cortazar, que iba hasta la catedral del Buen Pastor, y el ferrocarril de la Costa llegó hasta el entorno del caserío Amara original, zona que más adelante se conocería como Amara Zaharra.

En el primer cuarto del siglo XX, gracias al terreno ganado a la playa de Amara, se terminó de completar el Ensanche del Sur (incluida la calle Prim) que completaría el centro de la ciudad. Su expansión natural hacia el sur se topó con la ría, el arroyo Anoeta y con las riberas de Santiago, estas últimas pertenecientes al partido de Loiola. El primer hito del proceso de urbanización de toda esa área fue el encauzamiento del Urumea entre el puente de Santa Catalina y el puente del ferrocarril del Norte (puente de hierro). Como consecuencia de esa obra tan importante, cuyo acto oficial de inauguración se celebró en 1926, una parte de la península de Mundaiz del barrio de Egia, así como los caseríos allí ubicados Etxeberria y Presaburu, pasaron a pertenecer a Amara, y, unas décadas después, fue posible construir Amara Berri.

Junto al encauzamiento del Urumea se presentaron los primeros proyectos para recuperar los terrenos ganados a la ría. A finales de la década de 1940 comenzaron a construir, según el último proyecto ganador, el ensanche de Amara o el barrio de Amara Berri, entre la plaza del Centenario y Anoeta, en distintas fases, en un largo proceso que duraría prácticamente hasta finales de siglo. Con el nuevo encauzamiento, lo primero que se hizo fue cubrir el antiguo curso fluvial y al efecto, entre otras, se utilizaron las canteras de la colina de Errando próxima a Anoeta. Al surgir el barrio nuevo, el área del caserío Amara original pasa a llamarse Amara o Amara Zaharra. Al finalizar el proceso de construcción de Amara Berri, el área entre la plaza de Irun, el ferrocarril de RENFE y el "Topo", el llamado Apéndice de Amara, quedó vacía salvo con algún que otro edificio de viviendas, hasta que en la década de 1990, se construyó el ensanche bautizado como Amara-Osinaga.

Por otro lado, el crecimiento demográfico que se conoce a partir de la década de 1950 hizo que la zona de Martutene se constituyera como un nuevo barrio, apropiándose de las tierras de Sarroeta, pertenecientes a Altza, y de buena parte de las de Amara Bajo. Asimismo, en las décadas siguientes se fueron formando nuevos barrios en otras zonas de esa amplia extensión del antiguo partido de Amara como, por ejemplo, Aiete y Zorroaga-Miramón.

Como último hito del crecimiento ininterrumpido de la ciudad, en la década de 2000 se construyó ya en terrenos pertenecientes al antiguo partido de Loiola, el último ensanche de la ciudad de Donostia / San Sebastián y surgió un gran barrio nuevo, Riberas de Loiola. Con esa nueva ampliación de la ciudad más allá de la vía férrea de RENFE, desde el centro, río arriba del Urumea, hasta el barrio de Loiola, la trama urbana no tiene interrupción alguna.



GOIKO ETA BEHEKO AMARA EL ALTO Y BAJO AMARA



Donostiako udalerria 1946an. Landa eremuko biztanleria-
ren auzokako banaketaren, nekazaritzako-ustiategien
(baserrien) eta azienda-eroldaren grafikoa. **Goiko eta
Beheko Amaratan banatuta ageri da Amara auzoa.**

Término Municipal de San Sebastián en 1946. Gráfico de la
distribución por barrios de su población rural, explotaciones
agrícolas (caseríos) y censo pecuario. **Amara figura dividido
en Alto Amara y Bajo Amara.**

930 H.
958 c.
155 C.
GOIKO AMARA + LUGARITZ
H. = biztanleak habitantes
c. = abelburu cabeza ganado
C. = baserriak caseríos
BEHEKO AMARA + LOIOLA
708 H.
859 c.
118 C.

AMARAKO BASERRIAK CASERIOS DE AMARA

**Amara auzokoak ziren zenbait baserri, Goiko eta Beheko Amarakoak. Guztiak aspaldi
desagertu baziren ere, horietako batzuen izenak iraun eta ezagun egin dira.**

Varios caseríos que pertenecieron al barrio de Amara, Alto y Bajo Amara. **Todos ellos han
desaparecido, pero el nombre de algunos ha permanecido hasta hacerse conocido.**



Errotatxo



Portutxo



Santiago + Santiagotxiki
Kutxa Fototeka



Txabola Kutxa Fototeka



Illunbe Sigfrido Koch



Anoeta
Pogelio Gordón



Lizarbegieta J. Tellabide



Irola J. Tellabide



Goiatzaundi



Txurriategi J. Tellabide



Miramon Ana Diéz Gallastegui



Polloe

Amara gaur egunean

Aipatutako eraikuntza eta obra garrantzitsu horien guztien ondorioz, XX. mendearen bigarren erdian Amara auzo historikoak izaera galdu, baztertua geratu eta hark betetako lurraldea hainbat auzotan banatu zen, horietako batzuk Amara izena daramatenak, baina jatorrizkoaren zati besterik ez direnak: Amara Berri, Amara Zaharra, Aiete (Zorroaga-Miramón bere baitan) eta Martutene.

Gaur egun, auzoan bertan jaiotako adineko baten bat izan ezean, duela mende erdi eskas Amara auzoa askoz zabalagoa izan zela jakin ere gutxiak dakite, eta gehiago batentzat Amara, Amara Zaharra egun hartzen duen espaziora mugatzen zen.

Bestalde, landa eremuko helbideak adierazteko moduaren aldaketak ere lagundu zuen Amara zabal hura ahazten. 1990eko hamarkada arte indarrean egon zenak baserriaren izena, auzoa eta auzo horretako zenbakia zeraman; horien orde, helbide berriak, kalearen edo bidearen eta zenbaki baten bidez izendatzen hasi ziren (esaterako: Betelundegi, Amara 68, Zorroaga Gaina 115 izatera pasa zen).

Amara auzoa desagertzearekin batera, bertako baserri kopuruaren galera ere nabarmena izan da azken mendean. 1862an 105 baserri bazituen, 2000 urtean, 34 besterik ez ziren geratzen, gehienak Aiete eta Martuteneko goialdeko muinoetan bizileku soil bilakatuta. **Juan de Olazabal** karlista ezagun eta Donostiako hainbat baserriaren jabeak honela zioen nostalgikoki "La Constancia" aldizkariako artikuluan: *"Nor da gai kalkulatzeko(...) bere primerako zabalguneei Donostiak irentsi dituen baserri kopurua, zenbakirik gabea (...) baserri-familiak exodora behartuz (...) luxuak ekortuta, traste zaharrak eta usain txarrekoak bezala (...) eta hori guztia baserrien eta baserri gehiagoren gainean"*. Amarako baserrietatik asko dagoe-neko desagertu diren arren, zutik dirautenak ere badira, jarraian ageri den zerrendan ikus daitekeen moduan. Gehientsuenak bizileku soil bilakatuta, baita baten batzuk eraikinean eraldaketa garrantzitsuak izanda ere, gutxi batzuk oraindik, lehenengo eran, bizitoki eta nekazaritzako esplotazio izaten jarraitzen dute.

AMARAKO BASERRIAK

Garratxenea
Basozabal
Goiatz Erribera
Goiatzaundi

Txanponenea
Arbaizenea
Arrubenea (aurriak)
Agustindegi
Gorritienea

Izostegi
Izostegi-Tolare
Etxabenea
Alkiza
Ugalde

Errandoaundi
Indiano
Katzolaberri
Alberroenea
Betelundegi

Lugañenea
Martutene
Larrañategigoia
Lukasenea
Agirretolare

Barkaiztegi
Zapatariberri
Balentegi
Goiatzberri
Goiatztxiki

Okendotegi
Txurriategi (aurriak)
Olatxo
Billindegi
Erbetegi

Auzoen banaketa berria

Duela mende batetik hona Donostiaren hazkunde demografikoak eraginda auzo berriak eraikitzen eta zaharrak garatzen nahiz etengabe eraldatzen joan dira, errealitate erabat ezberdina osatu arte. Hala, gaur egun oraindik auzoen arteko hainbat muga ez daude erabat finkatuta, ez dira ofizialak eta eztabaida iturri izan ohi dira.

Mende honen hasieran, 2003an, udal kudeaketa hobetu eta administratiboki auzo bakoitzaren hedapena zehazteko asmoz lan bat burutu zuen Udalak. Ordura arte erabili ziren irizpideek balio ez zutela konturatuta, irizpide geografikoetan, nahiz bertakoen nongotar sentimenduan oinarritu zen mugaketa berria egiteko. Baina prozesu haren emaitzarekin ez zen adostasunik lortu. Hala ere, azken urteotan proposamen harekin egin du lan Udalak. Donostiako Udalaren arabera 18 auzoz dago osatua Donostia, Landarbaso eta Urdaburuko mendiko barrutiez gain. Garai bateko Amara auzo historikoa horietako lautan dago banatuta: Amara Berri, Amara edo Amara Zaharra, Aiete eta Martutene.

Bestalde, 2015eko martxoaren 26an Donostiako udalbatzak behin betiko onarpena eman dio Donostiako Barrutien Organo Araudiari. Haren arabera hiriaren, oro har, eta bertako auzoen tamaina eta ezaugarriak direla eta, Donostia lau barrutitan antolatzea onartu da. Banaketa berri horri kasu eginaz, Erdialde-hegoaldeko barrutian egongo litzateke Amara eta Amara Berri, Erdialdea, Loiola eta Martutenerekin batera.

Amara en la actualidad

A consecuencia de todas esas construcciones y obras significativas mencionadas, en la segunda mitad del siglo XX, el barrio histórico de Amara perdió carácter, quedó arrinconado y sus tierras quedaron distribuidas en varios nuevos barrios, algunos de los cuales llevan el nombre de Amara aunque no son sino una parte del barrio original: Amara Berri, Amara Zaharra, Aiete (incluido Zorroaga-Miramón) y Martutene.

Actualmente, salvo algunas personas mayores nacidas en el barrio, muy poca gente sabe que hace apenas medio siglo el barrio de Amara era mucho mayor, y para la mayoría el barrio se limitaba al espacio ocupado por el barrio de Amara Zaharra actual.

Por otro lado, el cambio en el modo de composición de las direcciones rurales también contribuyó al olvido del Amara de antaño. La expresión vigente hasta la década de 1990 (nombre del caserío, barrio y, a veces, número de dicho barrio) fue sustituida por una nueva que consistía en el nombre de la calle o el camino y un número. Por ejemplo: el Caserío Betelundegi, Amara (68); pasó a ser Zorroaga Gaina 115.

Junto con la desaparición del antiguo partido o barrio de Amara, la reducción en el número de caseríos también ha sido notoria en el último siglo. Si en 1862 tenía 105 caseríos, en el año 2000 solo quedaban 34, y la mayoría habían pasado a ser meras viviendas situadas en los cerros de Aiete y la parte alta de Martutene. **Juan de Olazabal**, carlista afamado y propietario de numerosos caseríos en Donostia / San Sebastián, escribía nostálgico en un artículo del diario "La Constancia": "Quién es capaz de calcular (...) el número, sin número, de caseríos que ha devorado San Sebastián con sus fabulosos ensanches (...) obligando al éxodo rural a las familias rurales (...) barridos por el lujo, como trastos viejos y mal olientes (...) y todo ello en, de, por, y encima de caseríos y más caseríos". A pesar de que la mayoría de los caseríos de Amara han desaparecido aún quedan algunos en pie, tal y como se observa en la relación posterior. La mayoría son meras viviendas y algunos de ellos han sufrido grandes transformaciones en su estructura, pero subsisten algunos que, como antaño, siguen siendo vivienda y explotación agrícola.


Nueva distribución de los barrios

En el último siglo, debido al crecimiento demográfico de Donostia / San Sebastián, se han ido construyendo barrios nuevos y desarrollando o transformando los viejos constantemente, hasta crear una realidad totalmente distinta. Así, a día de hoy muchos de los límites entre los barrios siguen sin estar definidos del todo, no son oficiales y a menudo suelen ser objeto de debate.

A comienzos de este siglo, en 2003, el Ayuntamiento llevó a cabo una intervención con el fin de mejorar la gestión municipal y de definir administrativamente la extensión de cada barrio. Al percibir que los criterios utilizados hasta entonces no servían, a la hora de hacer una nueva delimitación se basó principalmente en criterios geográficos. Pero no hubo consenso en torno a los resultados de dicho proceso. Sin embargo, en los últimos años el Ayuntamiento ha trabajado con esa propuesta. Según el Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián la ciudad está formada por 18 barrios más los distritos montañosos de Landarbaso y Urdaburu. El barrio de Amara de antaño está dividido en cuatro de ellos: Amara Berri, Amara o Amara Zaharra, Aiete y Martutene.

Por otro lado, el 26 de marzo de 2015 la corporación municipal de Donostia / San Sebastián aprobó con carácter definitivo el Reglamento Orgánico de los Distritos de San Sebastián. Según este último, y debido a las características de la ciudad y al tamaño de sus barrios, se ha aprobado organizar la ciudad en cuatro distritos. Según esa división, Amara y Amara Berri son parte del distrito Centro-Sur junto con el Centro, Loiola y Martutene.

Amara Berri eraikitzen
Construyendo Amara Berri



Anoeta



Basozabal - Martutene



Aite - Miramon

